

OINARRIAK

Aurkezteko Epea:
Irailaren 11tik- Urriaren 11ra

Aurkezteko lekua:
landaola@landaola.eus
mailean edo Gipuzkoako
LGE-tako bulegoetan.

Gaia:
LANDANEKIN SARIA jarriaz.
Aurkezteko dokumentazioa:
Bi zatitan banatuta ideia edo
egitasmo bakoitzarentzako.
Datu pertsonalak alde batetik
eta proiektu edo egitasmoaren
informazioa bestetik.
Proiektua aurkezteko EREDUA
www.landaola.eus

Guztira 6 atal
Atal bakoitzean 2.500€
LA CAIXA "Rural Talent"
4 sari bakoitzean 1.000€

Eremua:
Gipuzkoako lurralde historikoan
garatzen edo garatuko den
proiektua izatea.

*Elikadura balio kateko enpresei
zerbitzu osagarriak eskeintzen
dizkieten enpresak Berrikuntza
atalean bakarrik aurkeztu ahal
izango dute.

Nori zuzenduta dago:
1.go sektoreko eta elikadura
balio kateko enpresa, fisiko eta
juridikoak eta elkarteak.

Proiektuak:
2023-2024 urteetan garatu edo
amaituko direnak.

BALORAZIO ERIZPIDEAK

Negozio-planaren zehaztapen-
eta sendotasun-maila.

Ekintzailtza-proiektuaren
heldutasun edo garapen maila.

Produktuaren eta/edo
zerbitzuaren izaera berritzailea
edo balio erantsia.

Enplegua sortzeko potentziala
eta enpleguaren kalitatea.

Garatzeko, hazteko edo
merkatuari erantzuteko
ahalmena.

Ekintzaile edo Talde
ekintzailearen benetako
inplikazio-maila proiektuan.

Ekintzaile edo Talde
ekintzailearen profila eta
ibilbidea.

Proiektuaren bideragarritasun
eta iraunkortasun ekonomikoa,
beste finantziatzaile batzuen
inplikazioa.

Lurra eta bertako baliabideekin
duen lotura

Nekazal jarduerarekin duen
lotura

Berdintasuna aurrikusten duten
proiektuak

Originaltasun edo balio erantsia
duten proiektuak

Hedagarria izatea

Sostengarria izatea: eredu
ekonomiko, sozial eta
ingurumenekoa kontuan izatea.

Teknologia berrien erabilera.

Kooperazio proiektuak.

EPAIMAHAIAREN ERANTZUNA

Epaimahaiak sariak emateko
gaitasun askea du eta
adostasunez hartuko ditu
erabakiak erizpideen arabera
Irabazleei telefonoz
deituko zaie eta

www.landaola.eus
web orrialdean jarriko dira.

Epaimahaiak atal
bakoitzerako dagoen saria
nola banatu erabakitzeko
eskumena izango du, bai eta
eman gabe uztekoa ere,
horretarako proiektu egokirik
ez dagoela iritziz gero.

BETEBEHARRAK

PARTE HARTZAILEEN BETEBEHARRAK

Sari lehiaketaren oinarriak
onartzea.

Idea edo proiektua behar
den bezala aurkeztea.

Datuen fidagarritasuna
bermatzea.

Sari lehiaketa ekitaldian parte
hartzea.

Landaolak antolatutako Ko-
sorkuntza tailer edo
aktibitateetan parte hartzea.

ANTOLAKUNTZAREN BETEBEHARRAK

Partaideek aurkeztutako
proiektu edo ideiak
isilik/ babesturik mantentzea.

Informazio gehiago: www.landaola.eus



LANDAN EGIN

Landa Ingurunearen Garapenaren legea 7/2022, ekainaren 30ekoak bere helburu estrategikoetan aipamen zehatza egiten du landa inguruneko sare ekonomikoaren dibertsifikazioa eta enplegu sorrerako arloan.

Hau ikusirik, eta landa eremuan ekintzailtza, sorkuntza eta elkarlana bultzatzeko ekintza konkretuak sortu eta martxan jarri beharra ikusirik, Landaola Federazioak Gipuzkoako Landa Eremuan ekintzailtasuna eta ko-sorkuntza sustatzeko egitasmoa aurkezten du.

HELBURUAK

Gipuzkoako landa eremuko ekintzailtasuna eta sorkuntza sustatzea.

Gipuzkoako 1.sektore eta elikadura balio kateko ekintzaileen proiektuak ezagutaraztea.

Gipuzkoako 1.sektore eta elikadura balio kateko enpresen artean ko-sorkuntza espazioak sortzea.

Gipuzkoako landa eremuan egiten diren ekimen edo jarduera berritzaileak ezagutaraztea.

Landa eremuan egun dauden enpresen motibazioa areagotzea innobazioa edo berrikuntzetara.

Landa eremuan dauden enpresekiko ezagutza/bisibilitatea areagotzea.

Landa eremuetako gizartearekiko begirunea eta aldeko jarrera areagotzea.

Gipuzkoako 1.sektore eta elikadura balio kateko enpresen arteko sinergiak eta elkar ezagutza dinamika bat sortzea.

LANDA-EKINTZAILE SARIAK

Sariak, urtero banatuko dira eta 6 ataletan emango dira:

Nekazaritza Jardueraren Garapena.

1.go sektoreko dibertsifikazioa.

Emakume ekintzaileari saria.

Gazte ekintzaileari saria.

Belaunaldi aldaketa saria.

Berrikuntza saria

Sari bakoitzeko irabazleak 2.500€ jasoko ditu.

LA CAIXA: **RURAL TALENT** (4 SARI)

Aurkezten diren proiektu guztien artean 4 aukeratuko dira **RURAL TALENT** ekintzaile saria eta 35orduko formakuntza jasotzeko. Bakoitzak **1.000€**-ko saria eskuratuko du.

LAGUNTZAILEAK:



hazi

BG | BIC GIPUZKOA UP! EUSKADI

Fraisoro eskola

NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

CaixaBank